

FUNTSEZKO SOZIETATEAK / BAZKIDEAK

Gure proiektuan, funtsezko bazkide eta laguntzaileak izatea oso garrantzitsua da proiektuak ondo funtziona dezan. Pertsona eta erakunde hauek baliabideak, ezagutzak eta trebetasunak eskaintzen dituzte, proiektua arrakastaz garatzeko.

Alde batetik, bertako sukaldari batzuen figura ezinbestekoa da, turistek plater tradizional euskaldunak prestatzen ikas dezaten gidatuko dituelako. Sukaldariak gastronomia tradizionalaren eta tokiko produktuen inguruko ezagutza ematen du, esperientziaren benetakotasuna bermatuz. Gainera, errezeten jatorria eta haien garrantzi kulturala azaldu ditzake.

Bestetik, tokiko ekoizleak ezinbesteko kideak dira. Adibidez, baserritarrak, arrantzaleak edo denda txikiak, kalitatezko eta gertuko produktuak hornitzen baitituzte. Haiei esker, proiektuak tokiko ekonomia babesten du eta produktu freskoak eta benetakoak eskaintzen ditu, bisitariarentzako balioa handituz.

Horrez gain, euskal kulturarekin lotutako pertsonak edo erakundeak ere garrantzitsuak dira, musikariak, historialariak edo gida kulturalak, esate baterako. Haien parte-hartzeak aukera ematen du esperientzia gastronomikoa musikarekin, historiarekin eta tradizioekin osatzeko, jarduera gastronomikoa ez ezik, kulturala ere izan dadin.

Azkenik, kudeaketa, sustapena eta bezeroarentzako arreta bezalako arloetan laguntza ematen duten bazkideak beharrezkoak dira, erreserbak antolatzeke, proiektua turisten artean ezagutarazteke eta esperientzia ona bermatzeko. Eragile guztiek rol argiak dituzte, eta horrek proiektuaren funtzionamendu egokia errazten du eta arriskuak murrizten ditu.

Ondorioz, funtsezko bazkide eta baliabideak ezinbestekoak dira gure txoko modernoak esperientzia gastronomiko euskaldun osoa, benetakoa eta kalitatezkoa eskaintzeko, sukaldaritza, kultura eta tradizioa uztartuz.